

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 43/2023 Foru Dekretua, irailaren 26koa. Onestea Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileei eta 2023rako deialdia

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b) 6. artikuluan ezartzen du lurralde historikoei dagokiela erakunde komunek kirola sustatzeko, eskola kiroleko eta guztiontzako kiroleko programen arloan emandako arauak garatu eta betearaztea.

Era berean, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 2.3 x) artikulua adierazten duenez, euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dute, goi mailako kirola antolatuz eta sustatuz kirol federazioen parte hartzearekin.

Halaber sustatuko dute, aipatutako Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen 23.2 artikulua araber, emakumeek jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukera, bizitzako etapa guztietara zuzendutako eta maila guztietako programa espezifikoak garatuz. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.5 artikulua araututakoaren ildotik, EAEko botere publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, haietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Azkenik, aipatutako Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen 4.f artikulua ezartzen du ezen lurralde historikoetako foru organoei dagokiela, bakoitzak bere lurralde eremuan, goi mailako kirola iristeko aukera duten etorkizun handiko kirolariak laguntza tekniko eta ekonomiko ematea, eta 95.2 artikuluan, berriz, ezartzen da etorkizun handiko kirolaritzat hartuko direla Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol arloko eskumena duen sailak onetsitako goi mailako kirolarien zerrendan egon gabe ere, maila horretara iristeko oinarridun espektatibak dituzten kirolariak.

Beraz, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak gaituta, zeinak 4.f artikuluan ezartzen baitu lurralde historikoetako foru organoei dagokiela, beren lurralde eremuan, goi mailako kirola iristeko aukerak dituzten etorkizun handiko kirolariak laguntza tekniko eta ekonomiko ematea, Arabako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du xedapen hau onestea.

Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren 2/2023 Legea indarrean jarri aurretik, foru erakunde honek Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak onetsi zituen Gobernu Kontseiluaren abenduaren 21eko 54/2021 Foru Dekretuaren bidez, baina 2022an lehen aldiz aldatu ondoren, Arabako Lurralde Historikoan egiten diren kirol modalitateen kasuistika desberdinak ikusita, kirol federazioek beren lehiaketetan egiten dituzten aldaketak kontuan hartuta, eta hiru foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean irizpideak koordinatu behar direnez lehiaketa horiek homegeneizatzeko, beharrezkoa da arau xedapena osorik berridaztea.

Beraz, proiektaturiko foru dekretuaren xedea da 2023an Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak ezartzea (izendapenak 2024an izango ditu ondorioak), bai eta deialdia onestea ere, Arabako Foru Aldundiak, Kirolaraba Fundazioak edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk talde horrentzat garatzen dituzten laguntza planetan parte hartu ahal izateko, eta praktikan hobeto aplikatu ahal izateko.

Dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako arauketa onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Xedapen Orokorrek egiteko Prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jaso baitira.

Horrela, behar bezala justifikatu da onetsi behar dela, eta, gainera, arau aldaketa proportzionala da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienekora mugatzen baita: Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzea.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, bermatuta geratzen da, justifikatu baita ez dela egin alde aurreko kontsulta publikoko izapidea eta bai entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapideak. Halaber, proposatutako proiektua onartu ondoren, ALHAOn argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premia gabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik aplikatzeko.

Azkenik, arau jarduera hori sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioen eta kontuak ematearen mende dago.

Horregatik, nahitaezko txostenak aztertuta, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileei, foru dekretu honen eranskinetan azaltzen den gisa.

Bigarrena. Onespena ematea 2023ko Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialdiari (izendapenek 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izango ditu ondorioak), honako ezaugarri hauekin:

— Eskakerak aurkezteko epea eta lekua:

1. Eskakerak aurkezteko epea 2023ko urriaren 5etik 26ra bitartekoa izango da, biak barne.

2. Eskakerak foru dekretu honen I. eranskinaren 4. artikuluan jasotako moduetatik edozeinetan egin ahal izango dira. Artikulu horretan jasotakoaren arabera, aurkezpen telematikoak egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoaren bidez egin beharko dira (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/convocatoria-designacion-deportistas-promesas-de-alava>). Era berean, telematikoki aurkeztera behartuta ez dauden pertsonak eskaera inprimakia deskargatu ahal izango dute aipatutako izapide espezifikoan (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/convocatoria-designacion-deportistas-promesas-de-alava>).

— Betekizunak:

1. Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean (indarrean dagoen idazketan) jasotako kirol modalitate eta diziplinetako Arabako edozein kirol federaziotan indarrean dagoen lizentzia bat izatea, erroldatuta dagoen herria edozein dela ere.

2. I. eranskinaren 3. artikuluan adierazitako kirol merezimenduren bat lortu izana. Izendapen honetarako kontuan hartuko diren kirol merezimenduak 2022ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era bitartean lortutakoak izango dira.

3. 2000. eta 2008. urteen artean jaio izana.

Aurrekoa gorabehera, 2009. urtean eta ondorengoetan jaiotako pertsonak ere izan daitezke aitortzaren onuradun, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- 2022ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era bitartean dekretu honen I. eranskinaren 3. artikuluan adierazitako kirol merezimenduren bat.
- Adina dela-eta dagokiona baino goragoko kategoria batean lortu izana kirol merezimendua.
- Diziplina olinpikoan merezimendua lortu izana.
- Dagokion Arabako kirol federazioaren aldeko txostena izatea.
- Arabako Foru Aldundiaren baimena izatea lizentzia federatua lortzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak onesten dituen Gobernu Kontseiluaren abenduaren 21eko 54/2021 Foru Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Kirol arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea, helburua eta izendapenaren prozedura

Foru Dekretu honen xedea da Arabako etorkizun handiko kirolariak norgehiagoka erregimenean izendatzeko prozedura arautzea.

Etorkizun handiko kirolariaren aitortzaren helburua da Arabako Foru Aldundiak, Kirolaraba Fundazioak edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk kolektibo horrentzat garatzen dituzten laguntza planetan sartzeko aukera ematea.

2. artikulua. Onuradunak

1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten hautagaiak izan daitezke Arabako etorkizun handiko kirolariaren aitortzaren onuradun:

a) Arabako kasuan kasuko federazioaren indarreko lizentzia egiaztatzea, hautagaitza aurkezten den urte edo denboraldikoa eta Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinaren indarreko idazketan jasotako kirol modalitate eta diziplinetako edozeini dagokiona.

b) Urtero argitaratzen den deialdian ezartzen diren urteetako batean jaioa izatea.

- c) Hurrengo 3. artikuluan adierazitako kirol merezimenduren bat lortu izana ezarritako epean.
2. Ezin izango dira etorkizun handiko kirolarien izendapenaren onuradun izan honako egoe-raren batean dauden pertsonak:
- a) Administrazio bidean zehapen irmoa izatea, dopin arloko arau hausteagatik.
- b) Zehapen irmoa izatea, kirol diziplinaren arloan arau hauste oso larria egiteagatik.
- c) Baztertze egoera hauetakoren batean egotea:
- Etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialdi eta oinarriek dakartzaten betebeharrak ez betetzea, eskaera egin baino lehen.
 - Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua-ren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso izana, edo sexu diskrimi-nazioagatik, zehapenean ezarritako aldiari, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriarako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen duten bezala.

3. artikulua. Kirol merezimenduak

1. Banakako edo taldeko diziplinak:

a) Titulu ofiziala lortzeko nazioarteko lehiaketan parte hartu izana, parte hartze hori alde z aurreko sailkapenari lotuta badago. Parte hartze horrek 4. apartatuan ezartzen diren irizpideak bete beharko ditu.

b) Proba olinpikoetan Espainiako txapelketan 1., 2. edo 3. postua lortu izana, edo proba ez-olimpikoetan Espainiako txapelketan 1. edo 2. postua lortu izana. Gimnastika erritmikoan, lehen kategoriako kirol merezimenduak edo ohorezko hautaketa merezimenduak hartuko dira kontuan, banakakoetan zein taldekoetan.

c) Modalitatearen Estatuko selekzioarekin kontzentrazioetan edo teknifikazioetan parte hartu izana. Deialdi ofizialtzat hartuko da kasuan kasuko Espainiako federazioak egindako deialdi ofiziala, non autonomia erkidego desberdinetako kirolariek parte hartzen duten, eta helburua selekzio horrekin lehiaketaren bat prestatzea bada.

d) Joko olinpikoetan edo munduko txapelketetan sartzea ahalbidetzen duten probetan parte hartu izana.

Apartatu honetan jasotako jardueretan etorkizun handiko kirolari izendatzeko, gainera, ho-nako arau hauek hartu beharko dira kontuan:

- Bakarkako merezimenduak baino ez dira kontuan hartuko; hau da, ez da aintzat hartuko taldeko zenbait parte hartzailearen banakako sailkapenaren baturaren emaitza den sailkapena.

- Kirolariak parte hartu duen probaren sailkapen orokorrak egiaztatuko du kirol merezi-mendua lortu izana. Sailkapen orokor horretatik ateratako sailkapena (adinaren, kategoriaren eta abarren arabera) ez da baliozkoa izango.

- Modalitate edo diziplina olinpikoetan, kirol merezimendua, edozer dela ere, joko olinpi-koetan jokatzeko diren proben bestelako diseinua duten lehiaketetan lortzen bada, kirol merezi-mendu hori ez olinpikotzat hartuko da.

2. Talde diziplinak:

Modalitatearen Estatuko selekzioarekin kontzentrazioetan edo teknifikazioetan parte hartu izana. Deialdi ofizialtzat hartuko da kasuan kasuko Espainiako federazioak egindako deialdi ofiziala, non autonomia erkidego desberdinetako kirolariek parte hartzen duten, eta helburua

selekzio horrekin lehiaketaren bat prestatzea bada. Klubek edo taldeek lortzen dituzten postuak ez dira baliozkoak izango.

3. Banakako, taldeko zein ekipoko diziplinei aplika dakizkiekeen merezimendu bereziak:

a) Herri Kirolen modalitatearen kasuan, parekatu egingo dira, ondorio guztietarako, euskal selekzioarekin parte hartzea eta estatuko selekzioarekin parte hartzea.

b) Euskal pilotaren modalitatean, profesional aurreko kontratua izatea.

c) Hipika modalitatean ez dira kontuan hartuko CSI kategoriako edo beheragoko txapelketak.

d) Estatuko errekor absolutua ontzea.

e) Titulu ofizialik lortzen ez den nazioarteko lehiaketetan parte hartzea. Parte hartze horrek 4. apartatuan ezartzen diren irizpideak bete beharko ditu.

f) Kirol merezimenduak aurreko 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoez bestelako kirol lehiaketetan lortutako emaitzen bidez egiazta daitezkeen diziplinetan, foru dekretu honen 6. artikulua 1. apartatuan ezarritako balioespen batzordeak emaitza baloratuko du kirol garrantzia kontuan hartuta, eta, nolana ere, beharrezkoa izango da modalitatearen Arabako lurraldeko kirol federazioak egindako txostenaren bidez egiaztatzea.

4. Nazioarteko lehiaketetan parte hartzeagatik merezimenduek bete beharreko baldintzak:

a) Estatuko selekzio bat, euskal selekzioa Herri Kirolak modalitatean edo Basque Country ordezkatu izana munduko edo Europako txapelketetan edo, hala badagokio, nazioarteko federazio, Europako federazio edo nazioarteko liga profesional baten egutegi ofizialean sartuta dauden liga profesionalak izatea, baldin eta Euskadiko modalitateen eta diziplinen katalogoan onartuta badaude.

b) Gutxienez 5 herrialde ordezkatuta egotea.

c) Pilotari gagozkiola, nazioarteko parte hartzetat joko da jarraian zehazten diren lehiaketetan parte hartzea:

- Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioa (Estatuko selekzioarekin parte hartzea).
- Esku Pilotako Nazioarteko Konfederazioa (Euskadiko selekzioarekin parte hartzea).
- World handball council (Euskadiko selekzioarekin parte hartzea).
- Munduko Pilota Batzarra (Euskadiko selekzioarekin parte hartzea).

4. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Honako hauek aurkez dezakete eskaera:

a) Arabako kirol federazioek edo federazio horiei egotz dakizkiekeen funtzio publiko eskuordetuak betetzen dituzten Arabako beste erakunde batzuek.

b) Sozietatearen egoitza Araban duten kirol klubek edo elkarteek.

c) 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kirolariek.

d) 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kirolari adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak.

2. Kirol klubek, elkarteek edo federazioek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez. Horretarako, alde aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

3. Etorkizun handiko kirolariek edo kirolari adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak Kultura eta Kirol diputatuari zuzendutako eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, modu haue-takoren batean:

– Telematikoki, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez. Horretarako, aurrez, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

– Aurrez aurre, erregistro hauetako batean:

• Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Le-geak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

4. Urtero onetsiko da etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialdia, eta berariazko izapide elektronikora nola sartu jasoko du.

5. Eskaerak osorik bete ezean edo deialdian eskatutako agiriren bat falta izanez gero, erakunde edo pertsona interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar egun balioduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

– Eskaera orria, II. eranskinean jasotako formatuan (ez da beharrezkoa telematikoki aur-kezten bada).

– Dagokion Arabako federazioaren ziurtagiria, III. eranskinean jasotako ereduaren ara-berakoa, kirolariaren administrazio datuak eta heldu den lehiaketa maila jasotzen dituen. Dokumentazio hori zigilatuta egongo da, eta aipatutako federazioaren arduradunaren izena eta sinadura izango ditu.

– Dagokion Arabako kirol federazioaren indarreko lizentzia federatua.

6. artikulua. Etorkizun handiko kirolari izendatzeko prozedura

1. Aurkeztutako proposamenak balioespen batzorde batek ebaluatuko ditu. Batzorde hori honako pertsona hauek edo haien ordezkariak osatuko dute:

– Kirol zuzendaria.

– Kirol Zerbitzuaren burua.

– Kirol Zerbitzuko teknikari bat.

– Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko teknikari bat, hitza izango duena baina botorik ez.

Balioespen batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen laguntzaile eta aholkulari espezializatuak izendatu ahal izango ditu eta haien laguntza eskatu, eta haiek agintzen zaizkien eginkizunak betetzera mugatuko dira. Aholkulari espezializatuen lankidetzak eskatzen bada, errekusatze-ko eskubidea bermatzeko, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, honako hauek adieraziz: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan jasotako abstentzio kausetan, konfidentzialtasuna bermatuko dutela, emandako dokumentazioa ez dutela erabiliko eskaerak baloratzea ez den beste helburu baterako, oinarri hauetan eta dagokion deialdian ezarritako irizpideen arabera, eta, ebazpena eman ondoren, espedienteetako dokumentazio guztia suntsituko dutela edo, jatorrizko agiriak badira, prozedu-raren instrukzio organoari itzuliko diotela. Izendapenak kirol arloan eskumena duen foru sailaren

titularrak emandako ebazpenaren bidez onetsiko dira. Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, interesa duen edonork errefusatzeko eskubidea baliatu ahal izan dezan, lege ezarritako egoera eta baldintzetan

2. Aurkeztutako informazioa aztertu ondoren, balioespen batzordeak etorkizun handiko kirolariak izendatzeko proposamena egingo du, aurreko 3. artikuluan deskribatutako edozein kirol merezimenduren egiaztapena oinarri hartuta.

7. artikulua. Ebazpena

1. Kirol arloan eskumena duen saileko titularrak etorkizun handiko kirolarien behin betiko zerrenda onetsiko du, eta ALHAOn argitaratuko da.

2. Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondorengo egunetik zenbatzen hasita.

8. artikulua. Izendapenaren indarraldia

Etorkizun handiko kirolari izendapenak deialdian zehazten diren ondorioak izango ditu.

Hala ere, kirol arloko sail eskumendunaren titularrak izendapena baliogabetu ahal izango du honako kasu haueetan:

- Kirolariak bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez direnean.
- Izendapenaren indarraldian etorkizun handiko kirolariaren mailako kirol jarduerari uzten zaionean.
- Izendapenak irauten duen bitartean, Arabako klub batean egoteari uzten zaionean eta/edo Arabako federazioko lizentzia beste autonomia erkidego bati eskualdatzen zaionean.

9. artikulua. Etorkizun handiko kirolari izendatutako pertsonentzako onurak

Etorkizun handiko kirolari izendatutako pertsonak Arabako Foru Aldundiak edo Kirolaraba Fundazioak kolektibo horrentzat garatzen dituzten laguntza planetan parte hartu ahal izango dute, bai eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk garatutakoetan ere, ezartzen diren baldintzetan eta moduan.

10. artikulua. Etorkizun handiko kirolarien betebeharrak

1. Arabako Foru Aldundiarengandik etorkizun handiko kirolariaren aitortza jaso duten pertsonak honako konpromiso hauek hartuko dituzte, aitortzak irauten duen bitartean:

- Baimentzea Arabako Foru Aldundiak kirolariaren irudia erabiltzea, inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik gabe, aldundiaren bitarteko digital eta grafikoetan jartzeko, etorkizun handiko kirolari izendatzera eraman duen kirol jarduerarekin zuzenean lotutako egoeretan.
- Arabako Foru Aldundiak antolatutako sustapen jardueretara joatea, bertaratzea eskatzen zaionean.
- Arabako Foru Aldundiari bere kirol ibilbideari buruz eskatutako informazio guztia ematea eta errendimenduko kirolerako gaitasunak hobetzea ahalbidetzen duten jarduera programatuetan parte hartzea.

2. Artikulu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, etorkizun handiko kirolari izaera galduko da ondorio guztietarako.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p>Eskabidea</p> <p>Etorkizun oparoko kirolariak</p> <p>Anexo II Eranskina.</p> <p>Deportistas Promesas</p> <p>Solicitud</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Cultura y Deporte</p>

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			Identifikazio zk. ■ N° identificativo <input type="text"/>	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre			
Izena ■ Nombre <input type="text"/>			Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>		Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>			Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>	Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>
Herrialdea ■ País <input type="text"/>	Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>	Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>	Herria ■ Localidad <input type="text"/>		P.K. ■ C.P. <input type="text"/>		
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>							
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>		Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>					

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾
(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>			Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>	Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>
Herrialdea ■ País <input type="text"/>	Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>	Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>	Herria ■ Localidad <input type="text"/>		P. K. ■ C. P. <input type="text"/>		

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL
(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio si la persona solicitante es menor de edad)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			Identifikazio zk. ■ N° identificativo <input type="text"/>	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
Izena ■ Nombre <input type="text"/>			Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>		Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>						
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>		Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>				

Orria ■ Hoja 1/3

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Eskabidea Etorkizun oparoko kirolariak Anexo II Eranskina. Deportistas Promesas Solicitud</p>
--	---

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

PERTSONA INTERESDUNAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■ DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA INTERESADA**ADIERAZTEN DU**

Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak erraztuko ditu; gainera, eskabidea aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.

2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ditu

DECLARA QUE

Los datos presentados son ciertos y se comprometo a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

Cumple con las condiciones establecidas en el artículo 2.

KIROL ZUZENDARITZAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO POR PARTE DE LA DIRECCIÓN DE DEPORTE

Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak onuradunaren nortasun-datuak eskatuko dizkio dagokion administrazioari, adin txikikoa bada. Ados ez bazaude, egiaztatze beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko duzu (NAN).

Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak administrazio eskudunaren aurrean onuradunaren nortasun-datuak ofizioz egiaztatzearen.
AURKA NAGO .

La Dirección de Deporte de la Diputación Foral de Álava, solicitará a la Administración correspondiente los datos de identidad de la persona beneficiaria, en caso de ser menor de edad. En caso de oponerse deberá entregar la documentación necesaria para su comprobación (DNI).

ME OPONGO a que la dirección de deporte de la Diputación Foral de Álava compruebe de oficio los datos de identidad de la persona beneficiaria ante la administración competente.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Eskabidea Etorkizun oparoko kirolariak Anexo II Eranskina. Deportistas Promesas Solicitud</p>
--	---

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO ARGIBIDEA ■
INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "T-38 Kirolariak" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: kirolaren arloko beka eta dirulaguntzak ematea.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoaz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de "T38-Deportistas" para la finalidad de: concesión de subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>**BERARIAZKO ADOSTASUNA ■ CONSENTIMIENTO EXPRESO****ADOSTASUNA**

Espresuki, etorkizun oparoko kirolari izendatua izatea, oinarri arautzaileak onartzea eta deialdiari buruzko datu pertsonalak tratatzea.


CONSIENTE

De forma expresa su designación como deportista promesa, la aceptación las bases reguladoras y el tratamiento de sus datos de carácter personal con relación a la convocatoria.

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Orria ■ Hoja 3/3

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus</p>	<p>Etorkizun oparoko kirolaria Federazioaren Ziurtagiria</p> <p>Anexo III Eranskina</p> <p>Deportista Promesa Certificado Federación</p>
--	--

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

FEDERACIÓN ALAVESA DE	ARABAKO FEDERAZIOA
-----------------------	--------------------

ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA

Ondoren zehazten den kirolariak federazio honekin
urtean edo denboraldian
lizentzia indarrean duela:

Que la persona deportista que se detalla a
continuación tiene licencia en vigor con esta
federación durante el año _____ o temporada


Izen-abizenak Nombre y apellidos	Sexua ■ Sexo G-H ■ E-M
Kirol modalitatea Modalidad deportiva	NAN DNI

2022KO URTARRILAREN 27TIK IRAILAREN 30ERA BITARTEKO ■ DEL 27 DE ENERO AL 30 DE SEPTIEMBRE DE 2022

1.- **SOILIK BANAKAKO DIZIPLINAK BETETZEKO ■ RELLENAR ÚNICAMENTE** DISCIPLINAS INDIVIDUALES
Dagokiona bete / Rellenar el que corresponda. (Markatu X batekin □ Marcar con una X).

Nazioarteko lehiaketan parte hartzea, titulu OFIZIAL bat lortzeko Participación en competición internacional para obtener un título OFICIAL					
Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketa izena Competición	Postua Puesto	Maila gorena da Es categoría absoluta	<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No
Nazioarteko lehiaketan parte hartzea, titulu EZ OFIZIAL bat lortzeko Participación competición internacional para obtener un título NO OFICIAL					
Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketa izena Competición	Postua Puesto	Maila gorena da Es categoría absoluta	<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No
Espainiako txapelketa Campeonato de España					
Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketa izena Competición	Postua Puesto	Maila gorena da Es categoría absoluta	<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No
Estatuko selekzioarekin kontzentratzea edo teknifikatzea (Euskal Selekzioa Pilota edo Herri Kiroletan) Concentración o tecnificación con la selección estatal (Selección Vasca en caso de Pelota o Herri Kiroletan)					
Noiz Fecha	Non Lugar			Maila gorena da Es categoría absoluta	<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No
Munduko txapelketetan eta olinpiadetara joatea baimentzen duten probatan parte hartzea Participación en pruebas que concedan acceso a campeonatos del mundo y Olimpiadas					
Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketa izena Competición	Postua Puesto	Maila gorena da Es categoría absoluta	<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No
Estatu mailako errekor absolutua gainditi Batir récord estatal absoluto					
Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketa izena Competición	Marka Marca	Maila gorena da Es categoría absoluta	<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No
Pilotan kontratu aurre profesionala Contrato preprofesional en pelota					
Beste meritu batzuk (Zehaztu) Otros méritos (Especificar)					

Orria ■ Hoja 1/2

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Etorkizun oparoko kirolaria Federazioaren Ziurtagiria</p> <p>Anexo III Eranskina</p> <p>Deportista Promesa Certificado Federación</p>
--	--

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

2.- SOILIK TALDEKO DIZIPLINAK BETETZEKO ■ RELLENAR ÚNICAMENTE DISCIPLINAS COLECTIVAS
Dagokiona bete / Rellenar el que corresponda. (Markatu X batekin Marcar con una X).

Estatuko selekzioarekin kontzentratzea edo teknifikatzea Concentración o tecnificación con la selección estatal				
Noiz Fecha	Non Lugar			Maila gorena da Es categoría absoluta
				<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No

Nazioarteko lehiaketan parte hartzea, titulu EZ OFIZIAL bat lortzeko Participación competición internacional para obtener un título NO OFICIAL				
Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketa- ren izena Competición	Postua Puesto	Maila gorena da Es categoría absoluta
				<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No

Estatu mailako errekorra gairiditu Batir récord estatal				
Noiz Fecha	Non Lugar	Leihaketa- ren izena Competición	Marka Marca	Maila gorena da Es categoría absoluta
				<input type="checkbox"/> Bai/Sí <input type="checkbox"/> Ez/No

3.- BESTE LORPEN BATZUK (ZEHAZTU) ■ OTROS LOGROS (DETALLAR)

--

ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA
SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA

Orria ■ Hoja 2/2